

Beti

esaten
da nor
bere larruan
bizi arte ez
garela kontziente
benetan gertatzen
denaz, eta egia

esan esaera horri ez
zaio arrazoirik falta. Gure gizartean dena
da zisnormatiboa, dena, eta ondorioz
transfobiaren hatzaparretan bizi gara, modu
batean ez bada bestean, eta pertsona asko
modu guztietan.

Jaiotzen garen unetik neska edo mutil garen
esaten zaigu gure genitaletan oinarrituta, hau
da, genital femeninoekin jaiotzen den haur bati
esango zaio emakumea dela eta, aldiz, genital
maskulinoekin jaiotzen denari gizonezkoa
dela. Ikuspegi hau transfobia eta binarista
izateaz gain, absurdua da; baina izugarritzko
mina egiten du. Horren ostean izena dator,
badira generorik gabeko izenak baina oso
urriak dira, lehen baziren euskarazko zenbait
izen neutro baina horiei generoa ipintzea
erabaki zuten 2016an, sinestezina baina
egia, eta hau transfobia da.

Bestalde, komunen gaia legoke. Hasieran
esan dudan gisan, nor bere larruan bizi
artean ez da kontziente komunetan ematen
den transfobiaz, oso heavya da. Hasteko,
komun tradizionalak, hau da, "nesken" eta
"mutilen" komunak bereizten diren komunak
erabat binarioak dira. Hontarako garbi utzi
behar da generoa ez dela binarioa, hau
da, izan zaitezkeela neska, edo mutil, edo
beste zerbait; bigenero, agenero, trigenero,
genderfluid, grisgenero... Generoa ez da
binarioa, kontinuum luze eta zabal bat da eta
bada jendea kontinuum hortatik at kokatzen
dena ere. Beraz generoa ez bada binarioa zer
zentzu dauka komunak binarioak izateak?
Hau da gizonentzako eta emakumentzako



komunak soilik egoteak? Eta gainera ez dira
gizonentzako eta emakumeentzako komunak,
emakume eta gizon zisgeneroentzako
komunak dira, bestela, eta adibide pare
bat jartzearen, zergatik ez dago konpresak
botatzeko zakarrontzitxoak gizonen
komunetan? Gizonek hilerokorik ez daukatela
pentsatzea transfobia da, zeren bai, badaude
gizonak hilerokoa dutenak, askori honekaz
kurea sortzen diena, baxka egin
diezaiotela euren larruari. Edo zergatik daude
urinarioak gizonen komunetan eta ez aldiz
emakumeenetan? Eta zergatik egon behar
dute urinarioek? Zakildunek (gehienek) nola
demontre egiten dute pixa euren etxean? Ez
dut ulertzen etxean inongo arazorik ez eta
kanpoan urinarioen behar hori edukitzea.

Hortaz gain egoera oso deserosoak bizi
ditzakete komunetan pertsona transek,
gizon trans bat ez bada oso maskulinoa eta
emakume trans bat oso femeninoa biolentzia
jasan dezake, eta hau errealitate bat da. Gizon
izatearen kanonean edo emakume izatearen
kanonean sartzen ez den orok biolentzia
jasan dezake komun tradizionaletan. Transak
kanporatuak izan dira komunitatik, jendea
galdezka izan dute komun horretan zer egiten
duten esanez, zenbaitek infekzioak izan ditu
pixa eustearren beldur zelako komunera sartu
eta zerbait esan edo gerta zekioken, eta bai,
gaur egun hau gertatzen ari da. Nire iritziz
transfobia gehien ematen den lekuetako bat
dira komun tradizionalak, eta bada garaia
gizartea honetaz ohar dadin eta zerbait egin
dezan, ez dut uste komun komunak jartzeak

TRANS ERREALITATEAK: TRANSFOBIA.

hainbeste esfortzu suposatzen duenik, batzuk zorionez egin dute, baina leku gehienetan oraindik ere komun tradizionalak daude. Bestela ere ez dut uste zentzu askorik duenik ate batean 10 pertsona zain egoteak beste atean inor ez dagoenean. Ez dira neurona asko martxan jarri behar hau ulertzeko.

Lehen esan bezala gizarte zisnormatibo batean bizi gara eta hori alde guztietan islatzen da. Batzuetan jendea nahita da transfoboa, hau da min egitera doa, baina askotan jendeak jarrera transfoboak izaten ditu kontziente ez delarik, nahigabe, edo are gehiago, intentzio onenarekin etorri eta hankasartzen bukatzen dute askok, jarrera transfoboak edukiz, eta hanka sartze horien atzean informazio falta dago. Nahigabe egiteak baina ez du esan nahi mintzen ez denik. Ondorioz transek etengabe bizi dute transfobia, etengabe. Mutil (transgenero) bat mutila da eta punto, berdin zait operatu den, ez den, hormonatu den ez den. Neska (transgenero) baten kasuan berdin. Eta gainontzeko generoetako pertsonekin ere berdin.

Garbi eduki behar da genero identitatea gauza bat dela eta sexua (sexubiologikoa) beste bat. Hau da, bi gauza desberdin dira. Gizartea etengabe tematzen da bi kontzeptu hauek dependienteak direla esaten, baina ez, erabat independenteak dira. Hau da, gauza bat da emakume, gizon... izatea eta beste gauza bat da gorputza, eta pertsonak honekin duen erlazioa. Gauza bat da emakume (genero identitatea) izatea eta bestebatalua/XX kromosomak/ uteroa (sexu biologikoaren parte)... edukitzea, bi gauza independente dira. Alua edukitzeak ez du esan nahi emakumea zarenik. Modu berean, zakila edukitzeak ez du esan nahi gizona zarenik. Gizon bat egon daiteke gustura bere aluarekin edo ez. Emakume bat egon daiteke gustura bere zakilarekin, edo ez. Gizona ez den aludun batek eduki dezake disforia bere bularrekin, edo testosterona har dezake... Izateko mila modu daude, nor bera izatea da kontua eta bere buruarekin eta gorputzarekin

gustora egotea. Orduan zer zentzu dauka haur bat jaio aurretik mutil edo neska izango den galdetzeak? Absurdua da. Haurraren generoa hitzegiten duenean jakingo dugu, jakitekotan. Maskulinoan identifikatzen den mutil trans bati femeninoan hitzegiteak sor diezaiokeen mina azalezina da, eta bai, hau transfobia da, hitz larriz eta negritan, gainera. Ni adibidez mutil transgeneroa naiz, eta ukabilkada bat jaso dudala sentitzen dut inork femeninoan hitzegiten badit maskulinoan hitz egin beharrean.

Aurreko guztiarekin nahiko ez eta legeek ere ez digute bat ere laguntzen. Are gehiago, txontxongiloen gisa erabiltzen gaituztela esango nuke, nik behintzat sentsazio hori daukat, eta hala sentitu izan naiz. Ez da normala nortasun agirian izena eta sexua (generoa izan beharko litzateke baina tira, horrela ageri da) aldatzeko hainbeste bira eman beharra, psikologo batetik pasa beharra, hormonatu beharra... lotsagarria iruditzen zait. Zorionez badirudi gauzak aldatzen doazela eta oraintxe atera berri denez jada izena alda dezakegu inongo paperen beharrik gabe, baina ez antza "sexua". Espero dezagun laster jarriko dela lege berria martxan eta guzti honekin amaitu, onartzetara baita egungo egoera honi dagokionez.

Idatzi honetan aipatu ditudanak transfobiaren parte batzuk baino ez dira, tamalez askoz ere parte gehiago ditu baina denak ez dira idatzi batean kabitzen. Apurka-apurka gauzak aldatzen ari badira ere ukalezina da gizartea transfoboa dela, eta transok eten gabe pairatzen dugula transfobia, alde batetik ez bada bestetik, eta nire ustez, aurrez aipatu gisan ezjakintasunean dago oinarria eta informazio faltan, horregatik iruditzen zait garrantzitsu aerrealitate hau ekazaleratzea, ikusaraztea, ikusten ez dena ez delako existitzen jendearen begitara. Baina bagaude, bagara eta bagatoz...